

GIZARTE ZERBITZUEN ALORREAN DIHARDUTEN ELKARTEENTZAKO 2020KO
DIRULAGUNTZAK ARAUTZEN DITUZTEN OINARRIAK

1.Xedea

1.1.-Deialdi honen bitartez, 2020. urterako dirulaguntzak emateko irizpideak ezarri eta jakitera eman nahi dira. Gizarte esku-hartzearen eremuan ekintzak burutzen dituzten elkarteei zuzendua, hau da, gizarte zerbitzuen gaietan, pertsonen, familia eta taldeen autonomia pertsonala eta pertsonen, familien eta taldeen gizarte integrazioa babestu eta sustatzeko ekintzak burutzen dituztenei zuzenduak .

1.2.- Ekintza edo egitarau hauek honakoak izango dira:

- Elkarteen jarduera arrunta mantentzea.
- Elkarteren jardueraren sensibilizazio, prestakuntza, informazio eta zabaltzeko ekintza espezifikoak egitea.
- Elkarteren jardueraren xede diren taldeentzat esku hartzeko programa espezifikoak garatzea.

2. Aurrekontua

Deialdiko helburuak gauzatzeko, Lezoko Udalak 2020rako ondoko partida honetatik bideratuko ditu dirulaguntzak: 1 480.03.231.80 2020 zenbakia duen Gizarte Zerbitzuak arloko "Gizarte Elkarateentzako dirulaguntza" partidaren bidez eta guztira 2020ko aurrekontua 5.000€ dira.

3.- Onuradunak

Diru-laguntza jasotzeko aukera izango dute irabazi asmorik gabeko Elkarteek, hurrengo baldintzak betetzen badituzte:

- a) Gizarte zerbitzuekin edo eta osasunarekin zerikusia duten ekintzak garatzea.
- b) Legalki eratuak eta behar bezala inskribatua egotea dagokien edo dagozkien Erregistro edo zentsu publikoetan.
- c) Elkarteren esku hartzea Gipuzkoako Lurralde historikoaren eremuan garatzea.
- d) Dirua irabaztea xede ez izatea, izaera juridikoa edozein dela ere, elkartea, fundazioa, gizarte ekimenerako kooperatiba edo dirua irabaztea xede ez duen beste edozein, eta helburu publiko edo gizarte interesa betetzea sustatzea.
- e) Gizarte Segurantzako, Ogasuneko eta, bere kasuan, Lezoko udaleko beteheharretan egunean egotea.

3.1.- Horretaz gain, ez dira onartuko sexu arrazoiak direla eta, jarduera diskriminatzailea gauzatzen duten elkarteak, Emakumezko eta Gizonezkoen arteko berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen 24.2 artikuluan xedatutakoaren arabera. Era berean, ezin izango dute onuradun kondiziorik eskuratu beren jarduerarekin izaera sozial edo pertsonaleko diskriminazioren bat sustatzen duten elkarteak

4.- Eskabideak eta aurkezteko epea

Dirulaguntza-eskabide normalizatuak, Udaletxeko Sarrera Erregistroan aurkeztuko dira, astelehenetik ostiralera, 8:30etatik 13:30etara edo Lezoko udalak tramitazioa elektronikoki egiteko duen web orrian: <https://www.lezo.eus/eu/tramiteak>.

Era berean, informazioa Udaleko web orrian egongo da eskuragarri (www.lezo.eus).

Oinarri hauek Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitara emango dira eta egutegiko 10 eguneko epea utziko da eskabideak aurkezteko, argitara ematen den hurrengo egunetik kontaktzen hasita.

Emandako epe horretako azken eguna lan ez egiteko balitz, epea astelehenera arte luzatuko da, edo hurrengo lehenengo lanegunera, hori ere laneguna ez balitz.

5.- Aurkeztu beharreko dokumentazioa

Ondorengo dokumentazioa aurkeztu beharko da:

- Eskaera orria.
- Dagokien edo dagozkien Erregistro edo zentsu publikoetan behar bezala inskribatu izanaren ziurtagiria (aurretik ez bada aurkeztu)
- Elkartearen IFZaren (Identifikazio Fiskaleko Zenbakia) fotokopia. (aurretik ez bada aurkeztu).
- Elkartearen estatutuak.
- Aurkeztutako programa, proiektu edo jardueraren txosten zehaztuta.
- Diru-laguntzaren xede izango den programaren aurrekontua.
- Entitatearen urteko aurrekontua (gastuak eta sarrerak).
- Gizarte Segurantzarekiko, Ogasunarekiko eta, bere kasuan, Lezoko udaleko beteheharretan egunean dagoela adierazten dituzten egiaztagiriak.
- Banku edo aurrezki entitate batek emandako agiria, erakunde eskatzailea kontu korrante baten titularra dela ziurtatzen duena.
- Zinpeko aitortpena beste departamentuetan edo erakundeetan egindako eskaerak jasotzen dituen, edo hala dagokionean, dagoeneko emandako dirulaguntzak jasotzen dituen.

- Zinpeko aitopena adierazteko Elkartea ez dela oinarri hauetako hirugarren oinarriko 3.1 ataletan zehazten diren arrazoi eta inguruabarrenpean erori.

Akatsak zuzentzeko epea

Eskatzaileak aurkeztutako agiriak osagabeak edo oinarrietan ezarritako baldintzak betetzen ez dituztela egiaztatzen denean, interesatuari dei egingo zaio hamar laneguneko epean akatsak zuzen ditzan edo beharrezko agiriak aurkez ditzan.

Epea amaitutakoan akatsak konpondu ez badituzte, eskaera bertan behera utzi dutela joko da.

Eskaera onartua izanda ere, Udalak beharrezkoak dituen argibide eta dokumentuak eska ditzake.

6. Baloratzeko irizpideak

Diru-laguntzak ematerakoan, honako arloak kontuan hartuko dira, baldin eta egindako eskarian agertzen badira:

- a) Elkartea Lezokoa izatea. Puntu bat.
- b) Elkarreak bere jarduera Lezon garatzea edo bere zerbitzuekin Lezoko herritarrak artatzea. 2 Puntu .
- c) Elkarreak Berdintasun Plana onartuta izatea edo Berdintasunean enpresa kolaboratzailea izatea. Puntu bat.
- d) Elkarreak egiten dituen jarduerak gizarte zailtasunik duten herritarrei zuzenduta egotea eta pertsonaren, familiaren edo beste maila bateko hobekuntzari laguntzea. Puntu bat.
- e) Lezoko Gizarte Zerbitzuekin lankidetzatza izatea. Puntu bat.

Udalak elkarte bakoitzari emango dion diru-laguntza zehazteko, honako hauek hartuko dira kontuan:

- Udalak aurrekontuetan zehaztutako kopurua.
- Guztira Elkarre eskatzaileek lortutako puntuazioa.

7. Ebazpena

Entitate eskatzaileari behar bezala jakinaraziko zaie Alkate Dekretuz hartutako erabakia. Aldi berean, erabakian zehaztuko da ordainketa bakar batean edo zatika ordainduko den.

8. Diru-laguntzaren zuriketa

Gizarte programak garatzeko dirulaguntza jasotzen dutenek, Gizarte Zerbitzuetako teknikariek ezarritako baldintzen arabera, egindako ekintzen Memoria aurkeztu beharko dute Udalean 2021eko martxoaren 31a baino lehen:

- a) Egindako programa edo jardueraren memoria zehaztua, partehartzaile edo onuradunen datuak dagokien sexuaren arabera banatuta .
- b) Egindako jardueraren dokumentazio grafikoa (kartelak, argazkiak..)
- c) Elkarateak, dirulaguntza jaso duten kontzeptu bakoitzeko, izandako gastu eta diru-sarreraren balantze xehatuarekin batera, fakturak aurkeztu beharko ditu. Justifikatu diren gastu guztiek diru-laguntza jasotako urteko data izan behar dute eta diruz lagundutako proiektuarekin bat etorri behar dute.

Elkarateak egin beharreko oinarrizko lanak egiten dituzten profesionalen soldata gastuak ez dira diruz lagunduko.

Diru-laguntza zuritzen ez bada, dirua itzuli beharko da.

9. Betebeharrak

Honakoak dira onuradunaren betebeharrak:

- a) Diru-laguntzaren oinarri diren jarduerak egin edo/eta helburuak betetzea.
- b) Lezoko Udalaren aurrean zuritzea diru-laguntza ematearen edo erabiltzearen helburua eta ekintzak betetzen direla.
- c) Dirulaguntza jasotzen duen jardueraren berri emateko neurriak hartzea; hau da, onuradunak Lezoko Udalaren dirulaguntza jasotzen duten programa, jarduera, inbertsio edo ekintzen finantziazioaren izaera publikoaren publizitatea egin beharko du.
- d) Dirulaguntza emateko garaian kontuan hartutako edozein inguruabar aldatuko balitz dirulaguntza ematen duen organoari jakinarazi beharko zaio.
- e) Jarduera bertan behera utzi edo eskabidean adierazitakotik nabarmen aldatuko balitz, jasotako diru kopurua itzultzeko betebeharra izango du jaso duenak.
- f) Euskararen udal ordenantza betetzea, eta, ondorioz, diru-laguntza eskatzeko unean indarrean dagoen euskara normalizatzeko udal erabilera plana eta Hizkuntza Ofizialen Erabilera Irizpideak.
- g) Emakumeen eta gizonen berdintasunerako legea betetzea.

10. Hizkuntz irizpideak

Elkarteek Udalak onartuta dituen hizkuntz irizpideak bete beharko dituzte. Irizpide hauek ondoren zehaztuko dira:

- Diru-laguntza aurreko eta ondorengo tramitazioan: Idatzizko eta ahozko harremanak euskaraz izateko saiakera egitea (kontuan izanda, azaroaren 24ko 10/1982 Legeak herritarrei administrazioan eskaerak gaztelaniaz egiteko eskubidea aitortzen diela).
- Diru-laguntzaren xede den ekintzan euskara erabiliko dela bermatzea. Jendaurreko hitzaldi edo antzekorik antolatuko balitz eta hizlaria euskalduna ez balitz, laguntzaile euskaldun bat behintzat egotea, euskaldunen hizkuntza eskubideak ere errespetatu daitezkeen.
- Diruz lagundutako ekintzetan argitaratzen diren eskuorriak, kartelak, iragarkiak, oharra eta gainerakoak, ahozkoak zein idatzizkoak gutxienez elebitan egotea eta, kasu horretan, euskarari lehentasuna ematea.
- Jardueraren hedapen-lana eta jarduera bera euskaraz gauzatzen dituzten elkarteak diruz sarituko ditu Udalak (elebitasunaren alde egin duten elkarten parean).
- Ezarritako hizkuntza-irizpideak (elebitasuna bermatzea) bete ezean, ez da diru-laguntzarik emango.

11. Betebeharrak ez betetzeak

Deialdi honetan aurreikusten diren egin beharretakoren bat ez betetzeak, emandako zenbatekoa berraztertzeraino eramango du eta, hala badagokio, deuseztatu, gutxiagotu edota itzularaztera, azaroaren 17ko 38/2003 Dirulaguntzei buruzko Lege Orokorraren 37. eta 52.artikuluek eta ondorengoek aurreikusten duten eran.

12. Klausula gehigarria

Oinarri hauetan arautzen ez dena aztertuko da, azaroak 17ko Dirulaguntzen 38/2003 Lege Orokorraren, aipatu legea garatzen duen 887/2006 Errege Dekretuaren, eta Lezoko Udaleko Aurrekontuak Gauzatzeko Arauan adierazitakoaren arabera.